



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Toretzaileak Gasteizko herriari lapurretan

Poterea hartzearen euforia ote den ez dakit, baina Gasteizko PPko zinegotziek hilabeteon adierazpen asko eta asmo ugari plazaratu dizkigute. Horietako batzuek, ni bederen, txunditurik utzi naute: Alkate berria den Alfonso Alonsok euskara ikasi behar eta nahi duela jendeaurrean azaldu digu. Euskara ere bere hizkuntza dela dio. Zoragarria litzateke Cuerda alkate-ohiak ezin eta nahi izan ez zuena PPko Alkateak gauzatuko balu. Geroa lekuko!


Egitasmo berrien artean, ordea, zezenak torturatzeko plaza zaharberritzea dago, danon diruaz. Non eta milaka milioi pezeta balio duen orube batean! Zer iritzi ote diote horri ATEA taldeak, Animalien Babeserako elkarteak, 8812 hiritar-plataformak, Eguzki-ekologistek... eta abar luze batek? Hemen ere, Donostian bezala, beste Illunbe bat jasan beharko al dugu? **Iñigo Kastresana** • GASTEIZ

Txillardegia gehiegi

Izenburu honek bezala bukatzen zuen Fito Rodriguezen idazlanak EGUNKARIAN pasadan egunean Txillardegia omendu nahian UEUn zegoela aprobetxatuz. Halaxe ikusten dut nik, Txillardegia gehiegi dela, alegia.

Herri guztiek bere pertsonaiak behar dituzte erreferentzia bat izan daitezen, bere itzal luzea eta bere argi distiratsua ikus ditzagun, bidenabar apur bat besteok entenditzeko zer garen, nora goazen eta zertara eskaini gure indar apurra.

Gure Euskal Herri honetan oso jende gutxi egin du berak burututa-



ko lan eskergea eta aldi berean inorgutxik pairatu du bere jarrearengatik berak pairaturiko oinaze eta jazarpena.

Trabak, eragozpenak, oztopoak, zailtasunak, gaintitu ditu idazle honek propio jarrita bere kuraia ahultzeko, bere bizitza kaltetzeko larregi zelako bere faroak ematen zituen argitasuna eta eredu.

Herri honek gorazarre bat baino gehiago zor dio euskaldun borrokalaria honi ofizialki baztertuta egon arren ia garai guztietan aitzakia askoz baliaturik. Ni ordea pozten naiz ez dutelako lortu beraien asmo txarra eta gaiztoa. Berak behin eta berriro erakutsi du herri hau ez dela makurtzen, hots, ez duela onartzen eman nahi dioten tratatu jasanezina.

Bizitzan zehar askotan ia desesperaturik egoera mingarriak zegozkio-

nean tinko erasoan aitzin frogatu du oinarri tinkoagoak dituela inposatzaileek eta agintari ofizialek baino bere erakustaldi irmoa emanez, zuhaitz zahar eta sendo hau bizi dadin. Hezikaitz eta harro, maiz bekaizkeriak inguraturik, lurra gogor zapalduz entzun dezaten, oinarrizko gaietan sekulan amore eman gabe, tristezia eta mina pairatzeko gai izanik, hamarkada beltzetan zein egun kolorotsuetan, adin bakoitzari zego-kionarekin bizitza osoan, nahitaezkoena, Bertolt Brechtek hainbeste gorapatzen zuena, une guztietan, ordu bakoitzean. Halako eredugarriak diren pertsonak gabe gure herriaren bizitzak ez luke iraungo. Bere tinkotasun ezin antzeratuarekin frogatu du zer den herri bat maitatzea, berari bizitza eskaintzea. **Tomas Angel Gonzalez** • BILBO

galdeiozu...



Battitta Boloki

• EUSKAL HERRIKO GARAPEN
KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA •

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak zer pentsatzen du Iruñea Baionari lotu behar duen autopistaz eta horrentzat aurrekusiak izan diren bide desberdinez (bereziki Baigorritik pasatzen dena)? Alde edo kontra ote dira?

Peio Soule [Uztaritze]

■ **IPARRALDEKO GARAPEN** eskema egin zelarik, 1997an, Nafarroarekin harreman ekonomikoak eta kulturalak sendotzeko, Iruñeak loturak indartzea, ardatz estrategikoa zela erranik izan zen. Geroztik, ikusirik azken urte hauetan bide trafikoa nola goratuz doan, Garapen Kontseiluak lan-talde bat sortu du Pirinioen zeharkatzea ikertzeko. Gure xedea da ikuspuntu desberdinak dituzten elkarrean ordezkariek mahai baten inguruan biltzea eta garatu behar diren estrategientzako gomendioak aitzinatzea, kontuan hartuz ingurumen eta ekonomia arloetako eraginak eta inzidentek. Lan talde honen ondorioak plazaratuak izanen dira urte hurren bukaeran.

• MONTXO •

